

Sakontze Egitasmoa

Seme-alabak D ereduan eskolatu dituzten guraso erdaldunen euskararekiko aurreiritziak

Egilea: Oihane Calejero Beldarrain

Tutorea: Estibaliz Amorrortu Gomez

2016/07/28

AURKIBIDEA

Laburpena	4
1. Helburua eta justifikazioa	5
2. Marko teorikoa	6
2.1. Aurreiritzien eta jarrerren definizioa	6
2.2. Guraso erdaldunen jarrera eta aurreiritziak	9
2.2.1. Motibazioa	9
2.2.2. Euskararen balio instrumentala	12
2.2.3. Euskararen balio integratzailea	13
2.2.4. Hizkuntza-ideologia	13
2.2.5. Normalkuntza prozesuari buruz	14
2.2.6. Aurreiritzi mesedegarri eta oztopatzaileak	16
2.2.7. Bai-baina jarrera	19
3. Ikerketaren testuingurua	20
3.1.1. D eredua	20
3.1.2. Bilbo eta Bilbo Handiko egoera soziolinguistikoa	21
3. Metodologia	23
4. Ikerketa	25
4.1. Hizkuntza-biografia eta ingurunea	25
4.2. D ereduan eskolatu	29
4.3. Zer egiteko prest daude seme-alabei laguntzeko	36
4.4. Euskararen balioa	39
4.5. Euskara jakitearen sariak	42
4.6. Aurreiritziak eta jarrerak	44
4.7. Aisialdia euskaraz	51
4.8. Euskara erabiltzeko zailtasunak	53

5. Ondorioak	55
6. Erreferentzia bibliografikoak	57
7. Eranskinak	60
1. eranskina	60
2. eranskina	61
3. eranskina	62
4. eranskina	63
5. eranskina	65
6. eranskina	67
7. eranskina	72
8. eranskina	78
9. eranskina	82
10. eranskina	86
11. eranskina	89
12. eranskina	93
13. eranskina	95
14. eranskina	97
15. eranskina	99
16. eranskina	101
17. eranskina	103

Laburpena

Sakontze Egitasmo honetan, seme-alabak D ereduan eskolatu dituzten guraso erdaldunen euskararekiko aurreiritzi eta jarrerak aztertuko dira. Horretarako, euskara maila apala eta hitz egiteko gai ez diren sei gurasoren euskararen inguruko diskurtsoak grabatu eta aztertu dira. Banan-banan egin zaie grabaketa, elkarrizketa irekia erabilia eta gidoi bat jarraituz. Ondoren, marko teorikoaren eta diskurtsoetan azaldutakoaren arteko erkaketa egingo da. Bertan jakin nahi da zerk bultzatu edo zer arrazoi izan duten guraso horiek eurek ezagutzen ez duten hizkuntza batean euren seme alabak eskolatzera, horregatik laguntzea zailagoa izango dela jakinda. Erabaki horren arrazoiak ulertzeko, funtsezkoa da jakitea guraso horientzat zer den euskara edo zer onura izango lukeen euskarak euren-seme alabentzat.

1. Helburua eta justifikazioa

Lan honen helburua, ingurune soziolinguistiko erdaldun batean, seme-alabak D ereduan matrikulatu dituzten gurasoek euskararekiko dituzten jarrerak eta aurreiritziak ezagutzea da. Horretarako, gurasoen diskurtsoa aztertuko da.

Gaur egun, EAEn hezkuntza eredu hedatuena D erdua da, euskarazkoa hain zuzen ere. Hala ere, ume euskaldun horien guraso gehienek ez dakite euskaraz, eta hori are nabariagoa da gurasoak gune soziolinguistikoki erdaldunean bizi badira. Hortaz, zerk bultzatzen ditu euren seme alabak eurek ezagutzen ez duten hizkuntza batean eskolatzen? Arrazoiak asko eta askotarikoak izan daitezke, eta lan honetan berauek aztertu nahi dira.

Lana burutzeko, euskararen ezagutza oso urria dutenak izango dira aztergai (gehien jota euskara A1 inguruko maila dutenak). Hasieran gurasoak guztiz erdaldunak izateko asmoa bazegoen ere, aztergai erabilitako pertsona gehienek dute A1 besteko maila; izan ere, zaila izan da euskararen ezagutzarik ez duen gurasoren bat aurkitzea. Dena dela, guraso erdaldunak euskara ikasten egoteak eragina izango du azterketan, ez baita gauza bera ikasteko ahaleginik ez egitea edo ikasketa prozesuan egotea.

Bertan, euren seme-alaben euskararen ikasketa prozesuan zer-nolako eragina, jarrera eta esku hartzea duten jakin nahi da. Izan ere, nahiz eta guraso hauek erdaldunak izan, ezagun da seme-alaben euskalduntze prozesuan eragin handia dutela. Guraso hauek eurek ezagutzen ez duten hizkuntza batean seme-alabak eskolatzean egiten duten ahalegina azpimarratzekoa da.

Erreferentzia gisa Bilbo eta inguruko herrietako gurasoak hartu dira, hau da, ingurune soziolinguistiko erdalduna. Izan ere, pentsa daiteke ingurune erdaldunean eta euskaldunean bizi diren gurasoen errealitatea ez dela berdina izango. Beraz, aldagai honen eragina kontuan izango da.

Honako ikerketa-galdera hauek egongo dira lanean, besteak beste:

- Biografia linguistikoa: Gurasoek euskararekin izandako erlazioa ezagutu; hartara, gurasoek seme-alaben euskararen ikasketa prozesuan hartutako erabakiak edo ekintzak hobeto ulertzeko asmoz.

- Seme-alabak D ereduari matrikulatzeko arrazoiak: Gurasoek arrazoi ugari izan ditzakete semeak euskara hutseko ereduari eskolaratzeko. Euren motibazioak ezagutzea funtsezkoa da aurreiritziak hobeto ezagutzeko.

- Gurasoen inplikazio maila euren seme-alaben euskalduntze prozesuan: nahiz eta guraso erdaldunak izan, euren seme-alabek hizkuntza bere egiteko zer egiteko gai diren jakin nahi da azterketan. Horretarako, egiten dituzten jarduerak edo jarrerak ezagutu nahi dira. Familian euskararen kudeaketa nola burutzen den azaleratzeko, gurasoen jarrera ezagutzea ezinbestekoa da.

- Euskararen balioa. Hizkuntzari ematen zaion garrantzia ulertu ahal izateko, gurasoek euskarari ematen dioten balioa ezagutu behar da: instrumentala, integratzailea, biak batera, eta abar. Seme-alabek euskara ondo ikasiz gero lor ditzaketen sariak ere jakin beharrekoak dira.

- Euskararen erabilera aisialdian: Eskolan erabiltzen den hizkuntza bezain garrantzitsua da aisialdian erabiltzen dena. Gurasoek zer nolako aisialdia sustatzen duten jakin nahi da bertan: eskolaz kanpoko jarduerak, ekintza kulturalak, telebista, eta abar.

- Euskara erabiltzeko zailtasunak: Gurasoek seme-alabek euskaraz hitz egin dezaten ikusten dituzten zailtasunak ezagutu: aisialdian, ingurune erdalduna, eta abar.

2. Marko teorikoa

2.1. Aurreiritzien eta jarreraren definizioa

Ezer baino lehen, aurreiritziak definitu behar den terminoa da; hortaz, autoreek emandako definizioak aipatuko dira. Honako hau eman zuen Jesús Tusonek *Los prejuicios lingüísticos* liburuan aurreiritzi linguistikoei buruz:

Un "prejuicio lingüístico" es una desviación de la racionalidad que, casi siempre, toma la forma de un juicio de valor o bien sobre una lengua (o alguna de sus características), o bien sobre los hablantes de una lengua (en tanto que hablantes). Y se trata de un prejuicio generalmente dictado por la ignorancia o por la malevolencia, ajustado a estereotipos maniqueos y dictado por la desazón que nos producen todas aquellas cosas y personas que son diferentes a nosotros. (Jesús Tusón, 1996: 27):

Definizio honetan azpimarratzen da uste horiek hizkuntzalaritzan adituak ez direnek eginak direla, ezjakitasunagatik edo gaizkinahiagatik, eta hiltunei ere eragin diezaiekete.

Honako hau esaten da Auñamendi Eusko Entziklopedian: "Hizkuntza edo aldaera zehatz baten inguruan orokortu diren uste edo sinesteak. Aurreiritziek balio-judizio bihurtzen dira egitate diren ala ez kontuan izan gabe eta hizkuntzetatik hiztunenganako jauzia egiten dute. Aurreiritziek jarretan dute eragina, eta mesedegarriak edo kaltegarriak izan daitezke". Honako honetan esaten da aurreiritziak ez direla zertan txarrak izan, aurreiritzi hitza askotan zentzu negatiboarekin lotzen bada ere, zentzu ona izan dezake.

Beste definizio bat Juan Carlos Morenok *La dignidad e igualdad de las lenguas* liburuan emandakoa da. Bertan, Morenok aurreiritzien oinarria zein den azaltzen du:

Entendemos como discriminación lingüística toda aquella actitud hacia las lenguas o variedad lingüísticas que se base en la idea de que éstas se pueden clasificar en tipos y que existen diferencias entre esos tipos, que pueden justificar la concepción de que unas son superiores a otras total o parcialmente. (Moreno Cabrera, 2000: 15)

Izan ere, hizkuntzen artean sailkapenak egiteak esan nahi du hizkuntzen artean aldeak daudela, eta batzuk "hobeak" eta beste batzuk "txarragoak" direla. Bestalde, aurreiritziak eraldatzen joaten dira, garaian garaiko usteak islatuz.

Hizkuntza guztiek balio dute komunikatzeko, hori baita euren egitekoa, baina hizkuntza batzuek hitz edo termino hobeekin deskribatuak izan dira besteak baino. Horrez gain, bada beste arazo bat: diskriminazioa begibistakoa izan daiteke, baina hizkuntza-diskriminazioa ikustea ez da hain erraza, eragin soziopolitikoen menpe emon baitaiteke. Moreno Cabrerak azpimarratzen du linguistika arloan ere aurreiritzi hauek gerta daitezkeela eta ez dutela inolako oinarri zientifikorik:

[...] es absolutamente imprescindible poner de manifiesto cualquier atisbo de contaminación ideológica para que no se presenten como verdades científicas y como éxitos del conocimiento humano, lo que no es más que una justificación interesada y parcial de un prejuicio ideológico que nada tiene que ver con una verdad científica objetivamente demostrable. (Moreno Cabrera, 2000:16)

Linguistika arloan adituen artean horrelako aurreiritziak ere badirela ikusita, normala da pentsatzea ez-adituen artean aurreiritziak are ohikoagoak izango direla. Beraz, ezinbestekoa da aditu eta ez-adituen artean objetibotasuna gailentzea. Gaira ekarrita, guraso erdaldunen artean dauden aurreiritziak informazioa emanda deseztatu daitezke; izan ere, horretan datza gakoa, uste hauek ezjakintasunak sortzen ditu sarritan. Berauek apurtzea oso zaila den arren, epe luzeko lana izango da aurreiritzien eragina gutxitzea. Moreno Cabrerak

dioen bezala (Moreno Cabrera, 2000: 77) "sólo combatiendo la ignorancia, que hace que las impresiones superficiales nos confundan, podemos deshacernos de estas opiniones negativas sobre otras formas de hablar".

Jarrera linguistikoen definizio ugari egin dituzte hainbat autorek, eta honako hau esaten du Moreno Fernandezek (1998: 179): "La actitud lingüística es una manifestación de la actitud social de los individuos, distinguida por centrarse y referirse específicamente tanto a la lengua como al uso que de ella se hace en sociedad, y al hablar de lengua incluimos cualquier tipo de variedad lingüística".

Beste definizio bat aipatzearren, hizkuntza-jarreraren ondorengo definizio hau dakar *Soziolinguistika Eskuliburuak*:

Hizkuntza edo aldaera zehatz baten aurrean, alde edo kontra erantzuteko edo ekiteko joera da. Ikuspegi mentalistaren arabera jarrera barne sentimendua da, eta beraz, ezin da zuzenean atzeman. Ikuspegi behavioristaren ikuspegitik, aldiz, jarrerak giza jokaeretan daude. Nahikoa da jokaera hori behatzea jarrerak definitzeko. (Zarraga et al., 2010: 204)

Halaber, jarrera hauek aztertzeak berebiziko garrantzia du hizkuntzaren jabekuntza eta portaera sozialetan duten eragina ezagutzeko. Hortaz, jarrera hauek ezagutu behar dira berauetan eragin nahi bada. Horrez gain, zailtasunak jarrerak behatzeko moduan oinarritzen dira, ezin baitira zuzenean neurtu eta eragile askok parte har dezakete: familia, lana, lagunak, eta abar. Motibazio kontzeptua jarrerekin estuki lotutakoa da, motibazioa baita zerbait egitera bultzatzen duena.

Dena dela, jarreretan bereizketa bat egin behar da: jarrera aitortua eta jarrera ezkutua. Hainbat faktoreren ondorioz, jarrera aitortuak baliteke hain fidagarriak ez izatea, eta ezkutuak ezagutzea lortu behar da, egindako jarreraren azterketaren fidagarritasuna handiagoa izan dadin. Bestalde, jarrerak negatiboak eta positiboak izan daitezke. Ondorengo atalean garatuko dira aipaturiko ideia hauek.

Laburbilduz, esan daiteke bi kontzeptuak oso lotuta daudela, aurreiritziek hizkuntza-jarreretan eragina izan dezaketelako: mesedegarriak edo oztopatzaileak izan daitezke. Ondorioz, jokaera alda dezakete.

Euskarari dagokionez, aurreiritzi eta jarrera positibo zein negatibo horien jomuga izan da, nahiz eta historian zehar negatiboak gehiago izan diren. Aurreiritzi, kontrako jarrera eta ekintzak bildu zituen Torrealdaik *El libro negro del euskera* lanean, eta

aurreiritzi batzuk jada gaur egun arte heldu ez diren arren, beste batzuk duela gutxi arte indartsu izan dira:

En el caso concreto del euskera estoy profundamente convencido de que se pierde [...], por su indole misma, por ser un idioma inapto para la cultura moderna, no puede acomodarse a vida moderna, que Bilbao hablando vascuence es un contrasentido, que una obra de ciencia, de filosofía, de alta elucubración es imposible en vascuence. Es éste un idioma rural, sin tradición literaria... (Miguel Unamuno, 1901). (Torrealdai, 1998: 48)

A los buenos escritores en euskera, si les daría un consejo, es que pasen al castellano [...] van a tener una acogida mucho más gratificante en una lengua más rica, más maleable, una lengua literaria (Jon Juaristi, 1987). (Torrealdai, 1998: 2006)

2.2. Guraso erdaldunen jarrera eta aurreiritziak

2.2.1. Motibazioa

Motibazioei dagokienez, bi motibazio mota bereizten dira: motibazio instrumentala eta motibazio integratzailea (Zarraga et al., 2010: 75). Lehen hizkuntzaren ospea eta izaera praktikoarekin lotzen da, eta bigarrena, hizkuntza talde bateko parte sentiarazten duena da, pertsona horrentzat hizkuntzak talde identitaterako garrantzia duenean.

Bi sailkapen horiez gain, beste sailkatzeko bi era ere daude: Barneko motibazioa eta kanpoko. Alde batetik, barnekoak norbanakoaren barruan sortzen direnak dira eta kanpoko faktoreek ez dute eraginik, hautu propioa baitita. Beste aldetik, kanpoko faktoreek eragindako presioaren ondorioz sortutako motibazioak dira.

Kanpoko motibazioa maila sozialekoa izan daiteke (integratzailea), edo hizkuntza-politikaren eraginpekoa (instrumentala). Hala ere, kanpoko motibazioak balio integratzaile eta instrumentala izan dezakeen era berean, alderantziz ere gertatzen da. (Amorrortu et al., 2009: 34). Zenbait kasutan zaila da jakitea motibazioa kanpoko edo barrukoa den, muga lausoa izan baitaiteke eta motibazio ezberdinak bi guneean ager daitezke.

Guraso erdaldunen kasuan, eta oro har erdaldunen kasuan, euskara ikasteko motibazioa izatea funtsezkoa da. Euskara ikasteko barne-motibazioan arrazoi nagusiak jakin-mina, irrika, seme-alabei laguntzeko baliagarria izatea eta integrazioa izan daitezke. Kanpokoak, ingurukoek egiten dutelako, arraroa izan zaitezkeelako edo lanerako derrigortzen dutelako dira.

Horrez gain, garrantzi handia du jakiteak zein arrazoi dituzten gurasoek D eredua aukeratzeko: euskalduna ez izateagatik seme-alabek ikasteko, ondo etorriko zaielako edo beste aukerarik ez dagoelako, adibidez. (Amorrortu et al., 2009: 194)

Egindako ikerketa batean (Amorrortu et al., 2009) hauek izan dira partaideek euskara ikasteko aipaturiko arrazoi nagusiak: gure hizkuntza izatea, seme-alabei etxeko lanetan laguntzeko eta lan aukera handiagoa izateko. Beraz, kanpo-motibazioa eta barne-motibazioarekin daude lotuta arrazoi horiek.

1. irudia: Euskara ikasteko arrazoi nagusiak

HE INTENTADO O ME GUSTARÍA APRENDER EUSKERA...	Primer aspecto más importante	Segundo aspecto más importante
Porque es nuestra lengua	% 23,70	% 7,30
Para poder ayudar a las/los niños con los deberes	% 23,10	% 11,40
Para poder optar a más trabajos	% 17,30	% 14,90
Para poder comunicarme en euskera con las/los vascohablantes	% 12,60	% 18,10
Para enriquecimiento personal	% 10,20	% 19,60
Por contribuir a que no se pierda	% 7,00	% 9,90
Porque en mi entorno familiar o de amistad algunos lo hablan	% 2,30	% 5,60
Por respeto a los y las vascohablantes	% 2,00	% 3,80
Por acceder al entorno cultural vasco	% 1,20	% 6,70
No contesta	% 0,60	% 2,60

Iturria: Amorrortu et al., 2009: 240

2.2.2. Euskararen balio instrumentala

Balio instrumentala terminoa jendeak hizkuntza bati aitortzen dion tresna balioa da, esparruaren arabera ezberdina izan daitekeena. Euskararen normalizazio prozesua aurrera doan heinean, lan esparruan eragina gero eta handiagoa izango da, batez ere lana aurkitzeko beharrezkoa delako. Hortaz, guraso askorentzat euskararen balio instrumentala da seme-alabak euskarazko ereduan eskolatzeko arrazoietakoa bat, edo arrazoi bakarra. Euren ustez, seme-alabek euskara jakitea abantaila da, edo ez jakitea desabantaila beste haurren aldean.

Garai batean arrazoi nagusia euskararekiko konpromisoa bazen ere, gaur egun badirudi guraso ugarirentzat arrazoi nagusia instrumentala dela.

Horrez gain, hainbat hizkuntzaren arteko lehia soma daiteke, hizkuntzen inguruko diskurtsoetan, "hizkuntza bat ala beste bat" aukeraketa egin behar delakoan. Ohikoa da euskara atzerriko hizkuntzekin alderatzea (ingelesarekin batez ere), baina kontuan izan behar da biek funtzio ezberdinak betetzen dituztela. Honen harira, bada beste uste hedatu samar bat: hizkuntza bat ikasteak beste baten zatiren baten galera esan nahi du, hau da, hizkuntza gehiago ikasita okerrago ikasten dira. (Amorrortu et al., 2009: 38)

Lan arloan, balio instrumentala du batez ere irakaskuntzan, eta administrazioan oro har. Hala ere, administrazio publikoan euskararen eskaerak ñabardurak dauzka. Adibidez, irakaskuntzarako euskara baldintza eta erabiliko den zerbait da, eta administrazio publikoan euskara eskaera bat da, puntuak ematen dituen, baina ez dena apenas erabiltzen. Beraz, irakaskuntzan euskara eskatzea "ulergarria" da, baina administrazioan eskatzeak aurkako jarrerak eragiten ditu zenbaitetan. Aitzitik, enpresa pribatuan euskarak balio instrumental eskasa du; hala ere, euskara zenbait postu betetzeko baldintza bihurtu da, euskara babesteko politikak tarteko.

Azken urteotan, euskararentzat mesedegarri diren erabakiak hartu dira, euskara gizarteko arlo guztietan indartze aldera. Dena dela, baliteke kanpoko eragina nahikoa ez izatea euskara sustatzeko:

[...] ezin eztabaidatuzkoa da kanpotik esku-hartzea beharrezkoa dela, ezta hizkuntza batek balio intrumentala behar izatea. Alabaina, euskara berreskuratzeko eta normalizatzeko euskararen balio intrumentala handitzeko kanpo-laguntza eraginkorra den zalantzazkoa da[...] beharrezkoa da kanpoko presioa barneratzea, norberarena egitea. (Amorrortu et al., 2009: 43)


Hortaz, gakoa kanpoko eraginaren balio instrumentaletik barne-motibazio edo motibazio integratzailera igarotzea da, hori nola egin da jakin behar dena. Dena dela, kanpo presioen inguruan eztabaida izaten da beti: Kanpoko eraginik ez badago jendeak ez du ahaleginik egingo ikasteko, eta beste zenbaitek inposaketa ikusiko dute kanpoko presio horretan. Beraz, pertzepzioa da hemen kontua.

Halaber, hainbat faktorek du erlazioa motibazio instrumentalarekin, eta horietako bat hizkuntzaren ospea da. Hizkuntzaren prestigioa edo ospea garrantzitsua da motibazioan eta hizkuntza horrekiko jarrerekin lotura dauka. Berau onarpen ofizial eta identitatea ematearekin erlazionatuta dago. Gaur egun, gainera, esan daiteke euskararen prestigioa

handitu egin dela iraganeko egoerarekin alderatuta, bere presentzia, neurri batean erabilera eta batez ere ezagutza handitu egin baitira. Bere presentzia handitzearen ondorioz, bere tresna balioa handitzea eragin du eta hiztunek erabilgarritasuna ikusten dioten hizkuntzari. Gainera, tresna balioa handitu delako sentazioa egon badago gizartean. Euskara ez dakiten askok desiragarritzat jotzen dute jakitea, barne-motibazio zein kanpo-motibazioarekin lotuta.

Ondorengo grafikoan jarrera, gaitasun eta erabileraren arteko korrelazioa ikus daiteke. Irudian azaltzen den bezala, jarrera altuen dagoen eragilea da eta azken hogeitau urteotan gorakada izan du. Berau igo ahala, erabilerak ere gora egiten du antzeko neurrian.

2. irudia: Erabilera, gaitasuna eta jarreraren arteko erlazioa



Egilea: Xabier Erize, Iturria: (Eusko Jaurlaritza, 2016: 20)

2.2.3. Euskararen balio integratzailea

Hiztunentzat euskarak gizarteratzeko balioa eta alor afektiboarekin loturak dituenean dauka hizkuntzak balio integratzailea. Euskara euskal nortasunaren elementu gisa uler daiteke, nahiz eta iritzi ezberdinak egon daitezkeen nortasunaren osaerak euskarak duen garrantziari buruz. Hortaz, kontuan izan behar da euskarak identitatean betetzen duen

papera aztertzea: euskara elementu zentrala den, euskara gaztelaniarekin batera edo euskara alde batera utz daitekeen.

Euskal Herrian euskararik gabe bizitzea posible da, jende asko baitago horrela bizi dena, bere beharra edo nahia ez duena. Hala ere, eskualdea euskaldunagoa bada euskara umeak integratzeko era bat izan daiteke.

Erdal guneeetan bizi diren erdaldunentzat euskara kontuak oso urrunekoak dira, beraz, egoera hori izendatzeko proposa da *bi mundu* terminoa (Amorrortu et al., 2009: 50). Posible da erdaldunak egoera horretaz jabetzea, edo ez. Egoera hori ez ikustea ohikoagoa da hiri handietan eta ingurune soziolinguistiko oso erdaldunetan bizi badira, baina hala ere, salbuespenak egon badaude, beti bezala. Kanpotik etorri diren edo etorri ziren pertsonen artean ere gerta daiteke, bertako kulturaren gizarteratzeko urratsik egin ez duten familia-etorkinen artean.

Dena dela, euskalduna izatea ez da ezinbesteko baldintza euskal munduarekin erlazio estua izateko. Euskara ikastea *bi mundu* egoera hori gainditzeko irtenbidea da, baina posible da hiztunak helburu instrumental hutsa badu zailagoa izatea. Baliteke ezagutzen duen munduaz gain beste mundu bat ezagutzea eta mundu hori gutxien duenik egotea. Beste behin ere, irtenbidea ezjakintasuna gainditzea da eta euskal mundua guztiei ezagutaraztea. Egoera hau gainditu ahal izan dutenek oso iritzi positiboa izan ohi duten egin duten aurkikuntzaz, hizkuntzak komunikazio sistema diren aldetik, beste kulturetarako sarbidea izan daitezkeelako.

Gaur egun, euskal biztanlerian euskararen aurkako jarrera begibistakorik aurkitzea zailagoa, lehen baino zailagoa behintzat. Jarrera horiek politikoki ez-zuzentzat jotzen dituzte eta isilpean geratzen dira, nahiz eta egon badauden. Jarrera horiek beste estrategia batzuen bidez azaleratu ohi dira: norbere hitzak beste baten ahotan jarri, kontakizun propioa 3. pertsonan kontatu, eta abar.

2.2.4. Hizkuntza-ideologia

Hizkuntza komunitate ezberdinak elkarren ondoan bizi direnean, harremanak sortzen dira, eta elkarreragin hauek arautzeko moduez dauden ikuspegi ezberdinek sortzen dituzte hizkuntza-ideologiak. Hizkuntzaren statusak eragin handia dauka ideologietan, eta

hiztunengan eragiten du. Honela definitzen da hizkuntza-ideologia (Zarraga et al., 2010: 186): "Pertsona edo giza talde batek hizkuntzei buruz dituen ideien multzoa. Ideologia hori erabilera, diskurtso edo portaera linguistiko jakin batzuen bidez adierazten da". Sinemen hauek gizarteak sortzen ditu eta hiztunari helarazten zaizkio, eta aldakorrak izan daitezke.

Halaber, hizkuntzak identitatean betetzen duen papera finkatzen du. Pertsona batzuentzat hizkuntzak komunikatzeko tresna baino ez dira, eta beste batzuentzat, hizkuntza taldearen nortasunaren funtsezko oinarria da. Euskal Herriaren kasuan, hizkuntzei buruzko bi iritziz nagusi daude, hizkuntza gaitasunari lotuta daudenak: euskaldunentzat hizkuntzak norbere nortasuna zehazteko balio dute, eta erdaldunentzat, hizkuntzek batez ere balio komunikatiboa dute. (Zarraga et al., 2010: 192)

Betidanik esan izan da euskara hizkuntza politizatua izan dela, eta norberaren ideologiak hizkuntzaren aurrean izango den jarrera baldintzatzen du. Hizkuntza eta politika lotzeak adierazten du zein garrantzitsua den hizkuntza herri identitatearen eraikuntzan. Ondorioz, diskurtsoetan euskara zenbait elementu politikorekin erlazionatzea ohikoa da. Zehazki, euskara abertzaletasuna edo ezker abertzalearekin lotu izan da.

Zenbaiten iritziz, euskara politizatuta egoteak inplikazioa eta militantzia eragin du, eta beste zenbaiten ustez, kalteak baino ez dizkio ekarri. Hizkuntzaren politizazioaren inguruan interesgarriak dira honako hitzok:

Hizkuntza batek gizarte osoaren babesa jasotzen ez duenean argi dago berori defendatzen duten talde sozial edo politikoen pentzuan dagoela. Baina hori ez litzateke gertatuko gizarte osoak bere egingo balu. Hizkuntza ahularen alde sustatzen diren neurriak ezin dira sekula har gehiengoaren hizkuntzaren kontrako bezala... (Aморrortu et al., 2009: 63)

2.2.5. Normalkuntza prozesuari buruz

Gaur egun euskara arloan aurrerapenak egon dira, baina ez da erraza zehaztea zein arlotan aurreratu den, pertzepzioak oso desberdinak izan daitezkeelako. Erabilera handitu egin da eta ezagutza handitu egin dira, nahiz eta neurri berean ez izan. Gainera, gazteen artean erabilera handitu egin da. Ingurune soziolinguistiko erdaldunetan, euskararen erabilera sinbolikoa bada ere, aurrerapen gisa ikusten da zenbaiten ustez. Hala ere, hiztuna kokatuta dagoen ingurunearen arabera pertzepzioa ezberdina izan ohi da, hau da, *bi mundu* egoeran bizi direnak edo euskararekin erlazio zuzena dutenak badira. (Aморrortu et al., 2009 :75)

Ingurune erdaldunetan bizi diren batzuei euskara erabiltzeko ahaleginak "alferrikakoak" iruditu ahal zaizkie: umeei ikasten dute eskolan eta lana bilatzeko eskaera da euskara, baina ez dute uste erabilera indartu daitekeenik. Hortaz, euskararen naturaltasun falta ikusten du askok ingurune erdaldunetan.

Euskara ez erabiltzeko arrazoiak askotarikoak izan daitezke: inguruan aukerarik ez izatea, blokeo psikologikoa izatea, ohitura-falta, konpromiso falta edo guztiek euskara ez ulertzea, esaterako.

Euskara erabiltzeko aukerarik ez izatea ohikoa da inguru erdaldunetan, eta askok umeei baino ez dute egiten. Askotan, guraso askok seme-alabak izatean euskararen aldeko konpromisoa hartu dute, ikasteko edo ahaztuta zutena berreskuratzeko. Blokeoa euskara ondo dakitenei gerta dakieke, euren burua oso mugatua ikusten dutelako. Ohitura-faltaren oinarrian aurreiritzi hedatu bat dago: erlazio bat hizkuntza batean ezartzean oso zaila da hizkuntza hori aldatzea. Baliteke zaila izatea, bien inplikazioa eta nahia beharrezkoa delako, baina posible da aldatzea. Azkenik, guztiek euskara ez ulertzea aurreiritzi batekin dago erlazionatuta: euskara guztiek ulertzen ez badute heziketa txarrekoa da hitz egitea (Amorrortu et al., 2009: 100-105). Geroago azalduko dira aurreiritzi honen nondik-norakoak.

Honen harira, gazteen euskararen erabilera urria kezka iturri izan da, askok ez baitute ikusten ezagutza mailan arazoa dutenik. Hala ere, gurasoak gehienetan ez dira kontziente eskolan ikasitako euskara eredu formaletik hurbil dagoela, eta ez dituela harreman informaletan erabiltzeko moldeak irakasten. Are gehiago, gazte askorentzat, batez ere ingurune erdaldunekoak badira, euskara eskolarekin baino ez dago erlazionatuta. Horregatik funtsezkoa aisildiarekin lotutako euskarazko ekintza eta jarduerak sustatzea, gazteek euskara arlo bakar batera muga ez dezaten.

Badago kasurik euskara inposaketa gisa ikusten duenik, eta ikastera derrigortuta sentitzean gaitzespen sentimenduak sor daitezke. Hau gertatzen da euskara inolako barne-motibaziorik gabe, kanpo-motibazio hutsarekin ikasi dutenean. Euskara ikasteko prozesuan esperientzia txarra izateagatik ere sor daitezke aurkako iritziak. Hala eta guztiz ere, inposaketaren pertzepzioa subjektiboa da, egoera berean dauden pertsonak ez baitute pertzepzio bera izaten. Edonola ere, jendea kontziente da iritzi hori egon badagoela gizartean.

Euskara irakaskuntza sistemak salbatuko duelako uste ere azaltzen da, baita gazteek euskara ondo ez ikastearen errua berea dela ere. Titulazioen kontuaren harira, honako hau nahiko hedatua dagoen iritzia da, gazteen egoera hau helduek maiz erabiltzen baitute:

Euskal gizartean askotan aipatzen den kontua da D ereduan ibilitako gazteak ere ez ei direla gai EGA azterketa gainditzeko eta honen funtsean hezkuntza-sistemaren porrota "ez da behar bezala irakasten edota EGA azterketaren porrota "zailegia da" iritzia da. Oso maila gorena eskatzen duen estandarra da [...] ezin pentsa daiteke euskaldun izate hutsagatik berez gainditzeko moduan egon behar denik... (Amorrortu et al., 2009: 119)

Batzuentzat, euskarari eustearen ardura gizarte osoa edo guztiona da, eta beste batzuek, ardura besteengan ezartzen dute, parte ez hartzeko euren eskubidea dutela esanda edo parte hartzea eskatzeko ahaleginei inposaketa deritzete, batzuek euskara horrela sentitzen dutelako: besteen hizkuntza. (Amorrortu et al., 2009: 80). Horrez gain, bereizketak ezartzen dituzte euskararen eskaeran, ingurunea erdalduna eskaera apalagoa eta ingurunea euskalduna bada, euskara maila handiagoa eskatzea.

Hala ere, euskararen ardura norberak hartu behar duelako ustea ere badago, besteentzat interesik ez badauka norbaitek egin beharko baitu bere alde. Horretarako, gobernuaren esku-hartzea funtsezkoa da, baina askorentzat ez du behar beste egiten eta pizgarriak behar dira bere erabilera eta ikasketa bultzatzeko. Gobernuak eta administrazioak emandako diru laguntzek kanpo-motibazioa indartzen dute, baina ez da nahikoa babes publikoaren esku uztea eta jendearen barne-motibazioa sustatu beharko litzatzeke.

2.2.6. Aurreiritzi mesedegarri eta oztopatzaileak

Arestian aipatu den bezala, aurreiritziak oso garrantzitsuak dira, maiz ondorio sozialak izaten dituztelako. Aurreiritziak bi eratakoak izan daitezke: oztopatzaileak eta mesedegarriak. Batetik, oztopatzaileak negatiboak dira eta ez diote euskararen ikasketa prozesuari laguntzen. Bestetik, mesedegarri edo positiboek hizkuntzaren alde jotzen dute eta irudi ideala ematen dute. Euskararen kasuan, aurkitutako aurreiritzien artean gehiago dira oztopatzaileak mesedegarriak baino.

Mesedegarriak euskara hizkuntza polita, aberatsa edota berezia izatea bezalako ideiak dira, hizkuntzaren idealizazioa oso mesedegarria izan daiteke hizkuntzara erakartzeko; oztopatzaileak, berriz, euskara hizkuntza zaila dela bezalakoak dira. Arrazoi

anitzak egon daitezke zailtasun hau adierazteko orduan, distantzia linguistikoa edo euskararen berezko ezaugarriak, esate baterako. Hau zuzenean edo gramatika aipuak erabilia egin ohi da.

Aurreiritzi mesedegarriekin hasteko, euskara hizkuntza polita delako aurreiritzia da horietako bat. Inguruko hizkuntzekin antzekotasun gutxi izateak bere xarma ematen dio erdaldunen ustez, gainera.

Gaur egun oso entzuna den beste aurreiritzi bat elebitasunaren aldekoa da, izan ere, ahalik eta hizkuntza gehien jakitea onuragarria den ideia oso hedaturik dago. Ideia hau oso mesedegarria izan da guraso erdaldunak seme-alabak D ereduan matrikulatzeko orduan, inor gutxik ikusten baitu hizkuntzak ikastearen alde txarrik.

Euskara hizkuntza zaila dela oso hedaturik dagoen aurreiritzia da eta onarpen handia duena. Kontuan izan beharrekoa da hizkuntza bat bigarren hizkuntzatzat ikasteko erraztasuna hiztunak duen lehen hizkuntzaren arabera dela. Ikasiko den hizkuntzaren ezaugarri linguistikoek ez dute inolako eraginik, eta ondorioz, ezin daiteke termino orokorretan hizkuntza bat ikasteko erraztasunaren inguruan hitz egin, beti subjektiboa izango baita. Hala ere, *Erdaldunen euskarareiko aurreiritziak eta jarrerak* lanean euskara ikasteko arrazoen artean hirugarrena da euskara, egindako azterketan inkestak % 31,6k esan baitu ez lukeela euskara ikasiko zaila delako (Amorrortu et al., 2009: 243).

Euskararen kasua berezia da, inguruko hizkuntzak diren hizkuntza erromantzeen oso ezaugarri tipologiko ezberdinak dituelako. Horren eraginez, euskara zaila eta euskara gaztelania baino zailagoa delako ideiak hedatu dira. Egia da gaztelaniar hiztun batek hizkuntza erromantze bat errazago ikasiko duela, baina horrek ez du esan nahi aurreiritzi hau egia denik. Aurreiritzi honen jatorria zein den azaltzen du Moreno Cabrerak:

El problema con el euskera a la hora de confeccionar gramáticas, como ocurre con las demás lenguas no indoeuropeas, consiste o reside, no en la lengua, sino en un hecho de historia de la gramática. Los instrumentos de análisis gramatical que se utilizan en occidente proceden de la tradición grecolatina; es decir, fueron desarrollados por y para describir dos lenguas de la familia indoeuropea. Cuando intentamos aplicar esos conceptos analíticos a lenguas que presentan una hechura diferente, pueden surgir problemas. [...] algunos gramáticos no echan la culpa a esos conceptos gramaticales tradicionales sino a la propia lengua que se intenta describir. (Moreno Cabrera, 2000: 128)

Hizkuntzalariek egindako azterketek ere mito hau indartu dezakete Morenoren esanetan (Moreno Cabrera, 2008: 204). Bertan esanetan da euskara eta gaztelania alderatzean, batentzat onak diren ezaugarriak bestearentzat ez direla era berean tratatzen,

eta beraz, hizkuntza deskribatzean subjektibotasuna nabaria dela. Esaterako, aditzen eta idazkeraren konplexutasunari buruz hitz egiten du zenbait autorek, baina kontuan hartu beharrekoa da euskararen aditza oso erregularra dela eta idazkera artifizialki sortutako bitartekaria dela.

Aurreiritzi honi aurre egiteko era erdal hiztunak euskarara erakartzean datza. Faktore asko barnekoak dira, baina beste batzuek kanpotik eragin dezakete (Amorrortu et al., 2009: 160): "Distantzia linguistikoaren zama erraz murriz daiteke pertzepzio positiboa, barneko motibazioa eta aldeko jarrera izanez gero".

Jesus Tusonek gogor egiten die aurreiritzi hau dutenei eta honako hau esaten du hizkuntzaren zailtasunari buruz:

¿Lengua fácil o difícil para quién? ¿con qué condiciones naturales? ¿con qué actitudes y predisposiciones?. Lo cierto es que quienes tildan a una lengua de "difícil" no parecen ser personas animadas a aprenderla, suelen encontrarse cómodamente instaladas en el monolingüismo, y probablemente sienten alguna desazón si en su entorno hay personas que hablan una lengua distinta de la propia. (Tusón, 1996: 53)

Hala ere, posible da errealitatea are sinpleagoa izatea eta ez egotea lotuta pertzepzio negatiboren batekin: jendeak ez badu inoiz hizkuntza bat ondo ikasi behar izan, ez du jakingo zer-nolako zailtasunak dituen hizkuntza baten jaketakuntza prozesuak.

Aurreko aurreiritziarekin loturikoa da euskara heldutan ikastea oso zaila delako ideia. Askotan, arestian aipatutako aurreiritzia oztopatzailea izaten da heldutan euskara ikastera animatzeko. Izan ere, arrazoiak arrazoi, gaur egun helduen %8,9 soilik ari da une honetan euskara ikasten (Amorrortu et al., 2009: 238). Zailtasun hau dela medio, guraso askok euren seme-alabengan utzi dute euskara ikasteko ardura eta D ereduan matrikulatzen dituzte, errazago ikasiko dutelakoan. Areago, heldu batzuk euskara ikasteko gai ez direlako ustea ere ager daiteke, batzuek erraztasuna dutela eta beste batzuek ez dutelako horretarako balio.

Beste aurreiritzi bat euskararen etorkizun ziurtatua da. Baliteke uste hau ezjakintasunak eragindakoa izatea, asko baitira hizkuntza gutxitu batek gainditu beharreko zailtasunak. Arrazoietakoa bat hizkuntzaren ezagutza eta erabilera ez bereiztea da, askok ez baitute aldea ikusten. Horrez gain, bitxia da ikustea nola erdaldunen artean askok euskara ziurtatuta dagoela uste duten eta euskaldunek, aldiz, euskara galtzear dagoela.

Elebitasunari buruzko usteak ere ohikoak dira: "Zenbat eta hizkuntza gehiago hobe" eta "hizkuntza bakarra egonda hobe" bezalakoak. Gaur egun, ohikoagoa da eleaniztasunaren aldeko iritziak entzutea, elebitasunak kultur aniztasuna eta aberastasuna dakarrela, esaterako. Hizkuntza bakarraren alde egiten dutenak elebakarrak izan ohi dira. Txikitatik elebidunak izanda hizkuntzak hobeto ikasten direlako usteak gurasoak euren seme-alabak eredu euskaldunetara bideratzea errazten du. Izan ere, beste erralitate batzuk ezagutzeko aukera ematen du hizkuntzak.

Elebiduna izanda, aurreiritzi hedatua da ezinezkoa dela elebidun orekatua izatea, hau da, hizkuntza bat beti gailentzen zaio besteari. Beste aurreiritzi bat denak euskaldun elebidunak izan arte Euskal Herria ez dela euskalduna izango da. Hau oso kontrako iritzia izan daiteke, kontuan izanda epe labur eta ertainera ia ezinezkoa dela Euskal Herriko biztanleria osoa euskalduntzea. Azken aurreikuspenen arabera, 2036. urtean biztanleriaren %49 izango da euskalduna, gaur egun % 36 den artean¹. Halaber, ezagun den bezala, ezagutzak ez du erabilera ziurtatzen.

Bada uste bat gaur egun oso hedatua dena: heziketa txarrekoa da euskaldunak ez direnen aurrean euskaraz hitz egitea. Zenbaitentzat oso ilogikoa da erdarara ez pasatzea baten batek ez badaki euskaraz. Aurreiritzi hau oso kaltegarria izan daiteke hizkuntza txikientzat, eta euskararen kasuan, kontrako jarrerak adieraz ditzake uste honek. (Amortu et al., 2009: 180)

2.2.7. Bai-baina jarrera

Termino honek euskararekiko eta euskara sustatzearekiko jarrera ez grinatsuak dituzten pertsonak izendatzen ditu. Iritzi konplexuak dituen jendea da, kontraesankorrak ere izan daitezkeenak. Nahiz eta euskararen alde egingo luketena jakin, konpromiso maila epela dute. Hala ere, posible da jende hau euskarara erakartzea eta euskararen aldeko balioak euren seme-alabei transmititzea. (Amorrortu et al., 2009: 183).

Bai-bainakoak ezagutzeko euren ezaugarriak eta diskurtsoa aztertu behar da, ageriko jarrerak eta ezkutukoak ezagutzeko asmoz. Talde honek ezaugarri komun batzuk

1

http://www.berria.eus/albisteak/122484/hizkuntza_politikaren_etorkizunari_buruzko_agiri_bat_adostu_dute_euskararen_aholku_batzordean.htm

dauzka, guzti-guztiak bete behar ez diren arren. Honako hauek dira: ez euskalduna izatea, hizkuntza nagusia gaztelania den ingurune soziolinguistikoan bizitzea eta euskararen mundua urrun dagoelako pertzepzioa izatea.

Oro har, euskarari eusteko eta bere aldeko jarrera aitortua izaten dute, eta ez dituzte bere alde egindako ahaleginak zalantzan jartzen. Dena dela, hizkuntza-politikari mugak jartzen dizkiete. Gogorarazten dute hemen bi hizkuntza daudela, ez euskara soilik. Halaber, euren beste ezaugarrietako bat mundu bereiziko egoeran kokatzea da: gehienek badakite euskararen inguruko mundua dagoela, baina ez dute ondo ezagutzen. Batzuek, euskal mundua badagoela esaten dute baloraziorik egin gabe, eta besteek, sarrera mugatua bada ere, iritzi positiboa dute.

Hizkuntza-politikari emandako babesa bai-bainakoen ezaugarri nabaria da. Mugak jartzen dituzte, nahiz eta ez dagoen mugen kokapenaren iritzi bateraturik. Beste edozein gaitasunaren mailan jartzen dute euskara, lan-munduan oso hedatua izanik, bai euskararen aldeko, bai kontrakoan artean. Esaten dutena da leku guztietan ez dagoela hizkuntza-errealitate berdina, hortaz, ezin direla berdin tratatu. Horrez gain, ikasi nahi ez duenaren erabakia errespetatu behar dela uste dute. Laburbilduz, euskara gorde behar dela irizten dute, baina inposaketarik gabe (Amorrortu et al., 2009: 187-191). Bai-bainako ez euskaldunen artean, euskara ikasi ez izana edo izandako zailtasunak justifikatzen dituzte.

Aurreiritziei dagokienez, arestian aipatutako aurreiritzi asko biltzen dituzte bai-bainakoek. Aurreiritzi positiboen artean, salbuespenak salbuespen, ez dute hizkuntza ederra edo aberatsa delako ideiarik aipatzen. Oztopatzaileen artean agertzen dira hizkuntza-aniztasunaren ingurukoak eta beste hizkuntzak ikasteari buruzkoa, esaterako. Errotuen dagoen aurreiritzi oztopatzailea hizkuntza zaila dela da, eta ez bai-baina taldekoen artean soilik.

3. Ikerketaren testuingurua

3.1. D eredu

EAEko hezkuntza sisteman irakaskuntza ez-unibertsitarioan hiru dira dauden hizkuntza ereduak: A, B eta D. Lehenak gaztelania dauka irakaskuntza-hizkuntza eta

euskara ikasgai soilak da, bigarrenak irakaskuntza-elebiduna izango du bi hizkuntzak erabiltzen dituelako, eta D ereduak euskara du irakaskuntza-hizkuntza, murgiltze-eredua da.

Gaur egun, EAEn hezkuntza eredu aukeratuena da D ereduak. EUSTATen argitaratutako azken datuen arabera unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzan 2015/2016 ikasturtean matrikulaturik dauden ikasleen % 63,36 D ereduaren burutzen ari dira ikasketak. D ereduaren datuak are hobeak dira Haur Hezkuntzako matrikulazioei erreparatuz gero: Ikasturte honetan matrikulatutako 92.601 haurretatik % 77, 89 D ereduaren matrikulatuak izan dira. Gainerakoak B ereduaren haurren % 18,45 (17.101 haur) eta A ereduaren % 3.09 (2.863). Beraz, bistan da hizkuntza ereduak hautatuena D ereduak dela eta ereduaren eskaerak etengabeko gorakada izan du azken urteotan. D ereduaren onespeneraren inguruan honakoa esaten da V. Soziolinguistika Klusterrean (2011):

EAEko 16 urtetik gorako biztanleen %66k seme-alabarik izanez gero, D ereduaren ikasi nahi luke eta %25ek B ereduaren. Duela 15 urte, askoz txikiagoa zen D ereduaren aldeko haututa (%41,4), eta asko handiagoa B ereduaren aldekoa (% 44,7). Era berean, A ereduaren aldeko hautua ere handiagoa zen (%11,2 duela 15 urte eta % 7,2 orain). (Eusko Jaurlaritza, 2011: 123)

Horregaz gain, D ereduaren eskaerak gora egin du ingurune soziolinguistikoki erdaldun eta euskaldunean, haurrek guraso erdaldun zein euskaldunak izan. Hortaz, zein dira seme-alabak D ereduaren matrikulatzera eramaten dituzten faktoreak? Berauek asko eta askotarikoak izan daitezke: arrazoi instrumentala, sentimentala, integratzailea, eta abar.

3.2. Bilbo eta Bilbo Handiko egoera soziolinguistikoa

Bilbo Handia Bizkaiko eskualde ez ofiziala da, eta bertan dago Bilbo hiriburua. Eskualde honetan daude, besteak beste, Getxo, Barakaldo eta Bilboko metropoli inguruko herriak. Herrien errealitate linguistikoa oso ezberdina da eskualde honetan, bertan sartzen dira Ezkerraldeko herriak eta Larrabetzu eta Lezama, adibidez. Eskualde osoan erdaldun baino euskaldun gehiago dituen herriak Larrabetzu, Loiu, Sondika eta Zamudio dira. Hortaz, herri hauek errealitate soziolinguistikoki euskaldunekoak dira. Bilbo metropoliko hiri handietako (Barakaldo, Santurtzi, Getxo, eta abar) egoera linguistikoa Bilbokoaren bertsua da.

EUTATeko² azken datuen arabera, Bizkaiko hiriburuan 342.370 pertsona bizi dira. Bilbon 78.727 dira euskaldunak, hau da, biztanleriaren % 23. Elebidun hartzailea da % 28,25 eta erdalduna % 48,75. Gainerako hiriburuetan bezala, 5-24 urte bitarteko bilbotarren erdia baino gehiago elebidunak dira. Hau da Bilboko azken urteotako euskararen ezagutzaren inguruko datuak (1. eranskina):

Azken urteotan Bilbok biztanleak galdu egin ditu, eta baliteke hori 2011. urtean ikus daitekeen euskaldun kopuruaren beherakadarekin erlazionatuta egotea. Gaztelania da bilbotar gehienek ama hizkuntza. Hala ere, auzoen arabera ama-hizkuntza euskara dutenen portzentajea ezberdina da.

Bilboko Udalak emandako datuen arabera³, Bilboko auzorik euskaldunenak Begoñan hasi eta ibaiaren eskuinaldetik Deustuko San Pedrora bitartean dauden auzoak dira. Bilboko euskaldunenak, ama-hizkuntza euskara dutenen protzentajea %7 eta %12koa baita (Deustu, Ibaiondo, Abando eta Begoña, batez ere). Barrutirik euskaldunenak dira euskaraz hitz egin edo ulertzeko gai diren biztanleen % 60 (100.000 pertsona inguru) biltzen dutelako. Aipatutako eremutik zenbat eta urrunago, orduan eta nabariagoa da beherakada, batez ere Bilbo hegoaldeko auzoetan (2. eranskina).

Ama-hizkuntza gisa euskararen transmisioa oso txikia da: ozta-ozta biztanleriaren % 5ak jaso du euskara bere gurasoengandik. Datu honek agerian uzten du irakaskuntzak eta euskaltegiek euskalduntzean duten garrantzia. Euskaraz mintzatzeko gai direnen artean % 7,37ak euskara erabili du etxean 2011n. Euskararen ezagutzak etengabeko gorakada izan du, baina erabilerak ez du ia gora egin.

Hiztunen adinari dagokionez, datuek erakusten dute euskara hitz egin eta ezagutzen duten biztanleria gaztea dela. Zenbat eta gazteago izan, orduan eta aukera handiagoa euskalduna izateko (3. eranskina).

Datuak ikusita, argi dagoena da Bilbo inguru soziolinguistiko erdaldunean kokatuta dagoela, eta beraz, inguruneak ez diola laguntzen euskararen ezagutza eta erabilerari.

2

http://www.eustat.eus/elementos/ele0010600/ti_Poblacion_de_2_y_mas_a%C3%B1os_de_la_CA_de_Euskadi_por_el_municipio_de_residencia_40000_Hab_y_edad_segun_el_nivel_global_de_euskera/tbl0010647_c.html#axzz4CbNpdhD6

3

http://www.bilbao.net/cs/Satellite?c=Page&cid=3000054794&language=eu&pageid=3000054794&pagename=Bilbaonet%2FPage%2FBIO_contenidoFinal

4. Metodologia

Lan hau gurasoei egindako elkarrizketak baliatuta burutu da, metodo kualitatiboa erabilia. Horretarako, euskara A1 maila duten eta 4-15 urte arteko semeak D ereduan eskolatuta dituzten 6 guraso erabili dira grabaketak egiteko. Zenbait gurasok galdetegian esaten dute A2 eta B1 mailara heldu direla euskaltegian, baina euskara ikasteko saiakera bat baino gehiago egin dute eta duela hainbat urte lortutako maila da, orain maila apalagoan hasi baitira euskaltegian.

Horrez gain, 6 gurasoak ingurune soziolinguistiko oso antzekokoak dira (Bilbo, Barakaldo eta Getxo), ingurune soziolinguistikoki erdaldunekoak hain zuzen ere. Hartara, gurasoek antzeko egoera biziko dute eta emaitzak pareka daitezke, ez baita gauza bera inguru euskaldun edo erdaldunean bizi den guraso erdalduna. Guraso erdaldun batek bere inguru hurbilean euskara izateak kanpo-motibazioan eragina izan dezake, presioa handiagoa izango baita. Horrez gain, kanpo-motibazioa barne-motibazio izatera eraldatzea posible da. Elkarrizketa gidatua erabili da grabaketak egiteko, galderen gidoi bat erabilia elkarrizketa bideratzeko (4. eranskina). Beraz, gurasoei grabatuak izateko baimena eskatu zaie eta grabagailu bat erabili da lan hau egiteko.

Galdetegian galderak atalka daude antolatuta: hizkuntza-biografia eta ingurunea, seme-alabak D ereduan eskolatzeko motibazioa, zer egiteko prest dauden euren seme-alabek euskara ikas dezaten, euskararen balioa, euskara jakitearen sariak, aurreiritziak eta jarrerak, aisialdia euskaraz eta euren seme-alabek euskara erabiltzeko izan ditzaketen zailtasunak, hurrenez hurren. Askotan gidoia ez da zehatz-mehatz jarraitu, elkarrizketatuak ezartzen duelako mintzagaia. Gidoiaren hasieran, girotzeko galderak eta erantzuteko errazak jarri dira (hizkuntzen ezagutzari buruz, maila, eta abar) elkarrizketa hasteko. Galdera mamitsuenak erdialdean kokatu dira, elkarrizketak luzeak direnez gurasoak bertara heltzean nekaturik egon ez daitezen.

Guraso bakoitzari kode bat jarri zaio anonimotasuna gordetze aldera. Hauek dira sei gurasoen kodeak: A1, B2, C3, D4, E5, eta F6. 6 elkarrizketatuak emakumezkoak dira, 35 eta 44 urte artekoak. Hauek dira euren datuak:

A1: Barakaldokoa, 6 eta 8 urteko semeak.

B2: Algortakoa, 7 urteko alaba.

C3: Bilbokoa (Uribarri), 15 urteko semea.

D4: Bilbokoa (Errekalde), 4 urteko alaba eta 6 urteko semea.

E5: Bilbokoa (Txurdinaga), 11 urteko alaba eta 13 urteko semea.

F6: Bilbokoa (Santutxu), 5 urteko alaba eta 10 urteko semea.

Horrela 30-40 minutuko grabaketak lortu dira eta edukiaren analisisia egin da azterketan, analisirako balioa duena soilik transkribatuta. Horretarako, aurretiaz gaiaren inguruko teoria aztertu da, analisirako garrantzitsua zer den aukeratu ahal izateko. Erabili den galderen gidoia ere marko teorikoan azaldutakoaren arabera antolatu da. Horrez gain, elkarriketatuek galdera batzuk idatzita erantzun dituzte (5. eranskina). Grabaketak eta dagozkien testak elkarriketatuaren kode berbera izango dute. Grabaketek eta galdetegiko erantzunak uztartuta egin dira analisisian, eta marko teorikoan esandakoarekin alderatu da hurrengo atalean. Honenbestez, hauek dira elkarriketatuen grabaketen transkripzioak eta galdetegiak:

A1: Transkripzioa 6. eranskina, galdetegia 12. eranskina.

B2: Transkripzioa 7. eranskina, galdetegia 13. eranskina.

C3: Transkripzioa 8. eranskina, galdetegia 14. eranskina.

D4: Transkripzioa 9. eranskina, galdetegia 15. eranskina.

E5: Transkripzioa 10. eranskina, galdetegia 16. eranskina.

F6: Transkripzioa 11. eranskina, galdetegia 17. eranskina.

5. Ikerketa

4.1. Hizkuntza-biografia eta ingurunea

Elkarrizketa hasteko, gurasoei euren biografia linguistikoaz galdetu zitzaien, hizkuntzekin izandako erlazioa jakiteko asmoz. 6tik 4 elebakarrak dira, gaztelaniaz komunikatzeko gai dira bakarrik, nahiz eta ingeles ezagutza pitin bat izan (A1 ingurukoa). Beste batek ingeles C1 maila du eta beste batek ingeles maila gorena du.

6 elkarrizketatuek Bilbo inguruan jaio eta bizi izan direla esan dute, bai grabaketetan, bai betetako galdetegian. Horrez gain, 6tik 6k esan dute euskara ikasle garaian ikasi zutela, batzuek A ereduaren zuten eta besteek ordu solte batzuk eskola garaian. Gehienek antzekoa kontatzen dute: ezer gutxi egin zutela eskolan.

Euskera empecé de pequeña pero muy poquito, porque en mi época... yo soy del 73, el euskera en algunos colegios no se enseñaba como se enseña ahora, no tenía la importancia que tiene ahora, entonces solo teníamos como dos horas a la semana, como si fuese clase de gimnasia o de plástica. No se veía como un idioma que se fuera a utilizar... (B2)

En mi colegio no se daba euskera, en el último curso en 8º de EGB empezamos a dar una hora a la semana, pero no dábamos mucho, la mayoría de las veces eran actividades. (D4)

Cuando estaba en el colegio los últimos años dábamos, pero a modo de inglés, una hora o dos a la semana, pero nada más. En el instituto también daba pero como si fuese lengua extranjera. Era justo el momento en el que se estaba integrando el euskera. (E5)

Euskararen presentziari buruz galdetuta, guztiek esaten dute ingurune erdalduna dela, salbuespenak salbuespen. Adibidez, batek aipatzen du bere lanean (Euskotrenen egiten du lan) presentzia baduela euskarak:

En mi entorno no existe el euskera, porque la gente con la que suelo salir no habla habitualmente euskera. No lo utilizo... pero en mi entorno laboral si se usa. (A1)

Nosotros vivimos en Txurdinaga, y aquí se habla poco euskera, como en Bilbo en general. Hay mucha gente que no sabe y básicamente hablas con los niños. Si que oyes padres que hablan con sus hijos, pero poco más. (E5)

Dena dela, pertzepzioak subjektiboak direnez, guraso bakoitzak egoera ezberdina deskribatzen du Bilbon. Batek euskarak presentzia duela dio, baina folklorearekin batera aipatzen du euskararen erabilera:

Hay mucha gente que habla euskera en el barrio donde vivimos, Uribarri. Las fiestas hay mucha difusión del euskera, dantzas... es visible. (D4)

Nolanahi ere, guztiek antzeko kontaketa egiten dute: ingurune erdaldunean bizi direla eta ez daukatela erabiltzeko aukera askorik. Nahiz eta elkarrizketatuak leku ezberdinetakoak izan, ez da desberdintasunik nabari egindako kontaketa:

Yo vivo en Santutxu, en mi entorno poca presencia. El resto de los padres no hablan euskera, los niños la única persona con la que hablan euskera es conmigo, no hablan con nadie más... no hay presencia. Yo creo que en Bilbo si hay poca presencia, hay pueblos que son muy euskaldunes. (F6)

